

UDALAREN ERAKETA **ERAKETA-BATZARRALDIKO AKTA**

BILDUTAKO ZINEGOTZI **HAUTATUAK**

EAJ-PNV/EA Koaliziokoak:

Patxi Plazaola Muguruza
Pello Garaialde Goikoetxea
Arantza Aseginolaza Azkargorta
Imanol Aranburu Gutierrez
Juan Martin Aldaregia Etxebarria
Jon Olano Arrese
Jose Antonio Ibaibarriaga
Usabiaga.
Malu Valles Fernandez
Aitor Aldasoro Iturbe
Ana Asla Egialde
Jon Kortaberria Lasa

PSE-EE (PSOE) talde politikokoak:

Jose Antonio Sanchez Gutierrez
Maria Pilar Vispo Chamosa
Alfonso Segade González

PP talde politikokoak:

Julio Herreros Serna
Gonzalo Zaldo eta Arana

EB / IU talde politikokoa:

Iñaki Saldaña Herrero

Beasaingo Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta hiruko ekainaren 14ko goizeko hamaiketan, kargua uztera doan Alkate-Udalburu jaunak deituta, lehenengo deialdian bildu dira joan zen maiatzaren hogeita bostean egindako Udal-hauteskundeetan zinegotzi hautatu eta aldarrikatuak izan direnak.

Halaber ekitaldian izan da eta ekitaldiko fede ematen du Itziar Arostegi Apaolaza Udaleko Idazkari andreak.

Idazkariak, batzarraldi honen helburua Udalaren eraketa dela adierazi du, horrela, martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatutako Hauteskunde Orokorretako Lege Organikoaren 195.1 artikulua eta Korporazio Lokalen Antolamendu eta Funtzionamenduko Erregelamenduko 37.1 artikulua agindutakoa betez. Batzarraldia ondorengo gai-zerrendaren arabera egin da:

- Udalbatzaren eraketa.
- Alkatearen hautaketa eta kasua bada, karguaz jabetzea.

Idazkariak batzarraldiari hasiera eman ondoren, Adineko Mahaia eratu da, martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatutako Hauteskunde Orokorren Erregimenari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 195.2 artikuluan aurreikusitakoa betez, eta Mahaia, honako zinegotzi hauek osatuta gelditu da: Gonzalo Zaldo eta Arana zinegotzi jaun hautatuak, mahaiburu berau, zinegotzi hautatu zaharrena delako eta Malu Valles Fernandez andereño zinegotzi hautatuak, zinegotzi hautaturik gazteena delako. Idazkari gisa, Itziar Arostegi Apaolaza andrearekin jardun du, batzarraldi honetako Idazkari denak alegia.

Mahaiko Idazkariak, banan-banan berari alde aurretik entregatu zaizkion eta zinegotzi hautatuen nortasuna egiaztatzen duten egiaztapen guztiak irakurri ditu eta Mahaikideek, Hauteskunde-barrutiko Batzordeak Udaletxe honetara bere garaian bidali zituen ziurtagiriek bat datozela eta zinegotzi bakoitzaren bateraezintasun eta ondasunen aitortzea egin dutela ikusi dute.

UDALBATZAREN ERAKETA

Aurreko eragiketa egin ondoren ikusi da, batzarraldi honetara hamazazpi zinegotzi hautatuak etorri direla, beraz, legezko gehiengo absolutua dagoela kontuan hartuta, Udala eratuta gelditu da. Idazkariak, apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuak ezarritako zinegotzi-formula irakurri dio zinegotzi bakoitzari, zinegotzi hautatuak beren karguez osotasunean jabetzeko. Zinegotzi-formula honelakoa da:

“¿Zin egiten al duzu, zinegotzi karguaren obligazioak finko beteko dituzula, erregeari leial izanez eta Konstituzioa, Estatuko oinarriko arau legez, betez eta betearaziz?”

EAJ-PNV/EA Koalizioko zinegotziak, legezko inposaketatik men egin diote ezarritako formulari.

PSE-EE (PSOE)ko zinegotziak ondorengo erantzun dute: “Si prometo”

PPko ordezkariak:

Julio Herreros: “Si prometo”.

Gonzalo Zaldo eta Arana jn.ak: “Juro solemnemente por mi conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de concejal con lealtad al rey y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado.”

EB / IUko zinegotzia:

Iñaki Saldaña Herrero: “en mi condición de representante de Ezker Batua-IU en el Ayuntamiento de Beasain acepto mi designación como concejal de Beasain y acato el ordenamiento vigente emanado de la Constitución de 1978 pero no comparto los fundamentos de ésta por:

- su carácter monárquico cuando nosotros defendemos la República.
- su carácter centralista cuando nosotros defendemos el Federalismo de Libre adhesión.
- su defensa del sistema capitalista cuando nosotros defendemos un ordenamiento basado en la justicia social y la solidaridad.”

Zinegotziek beren karguaz jabetu ondoren, hurrengo pausoa, Alkatea hautatzea eta izendatzea da.

ALKATEAREN HAUTAKETA

Idazkariak, zera adierazi die bilduei, alegia, martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatutako ekainaren 19ko Hauteskunde Erregimen Orokorreko 5/1985 Lege Organikoko 196. artikulua xedatzen duenaren arabera, Udalbatzaren Eraketa-batzarraldian bertan, Alkatea hautatu behar dela agindu horretan bertan ezarritako prozeduraren arabera. Prozedura hori ondorengoa da:

- Zerrendaburu diren zinegotzi guztiak izan daitezke hautagai.
- Bertan bildutako zinegotzi hautatu guztiak dira hautesle.
- Hautaketa, isilpeko txartel bidez eta bozketa bakarra eginez burutu behar da.
- Botoen legezko gehiengo absolutua lortzen duen hautagaia izango da hautatua, beraz, gutxienez ere, bederatzi boto beharko ditu hautatua izateko.

- Bozketa honetan ezerein hautagaik ere gehiengo absoluturik lortzen ez badu, botorik gehien lortutako zinegotzi-zerrendaburu dena automatikoki Alkate aldarrikatuko da. Berdinketa-kasuan, zozketaz ebatziko da.

Horren ondorioz, ondorengo zinegotzi hautatuak aldarrikatu dira Alkategai:

PATXI PLAZAOLA MUGURUZA EAJ-PNV/EA Koalizioko zerrendaburua

JOSE ANTONIO SANCHEZ GUTIERREZ PSE-EE (PSOE) alderdiko zerrendaburua

JULIO HERREROS SERNA PP alderdiko zerrendaburua.

IÑAKI SALDAÑA HERRERO EB/IU alderdiko zerrendaburua.

Idazkariak, hautesle bakoitzari txartela eman dio hautagaien izenekin eta aldi berean adierazi egiten die guztiei, bertan, Alkatetarako bozkatzen duten zinegotziaren alboan gurutzetxo bat egin behar dutela eta txartelak tolestatuta entregatu behar dituztela.

Txartel guztiak jaso ondoren, botoen zenbaketa egin da. Guztira hamazazpi boto eman dira eta ozenki irakurri ditu Idazkariak, bakoitzean Alkatetzarako proposatuta dagoen zinegotziaren izen-deiturak esanez. Horrela, ondorengo boto-kopuruak izan dituzte:

PATXI PLAZAOLA MUGURUZA jaunak.....11 boto

JOSE ANTONIO SANCHEZ GUTIERREZ jaunak 5 boto

JULIO HERREROS SERNA jaunak.....0 boto

IÑAKI SALDAÑA HERRERO.....boto 1

Bozketaren emaitza ikusita eta EAJ-PNV/EA Koalizioko zerrendaburuak botoen legezko gehiengo absolutua lortu duela kontuan hartuta, **PATXI PLAZAOLA MUGURUZA** aldarrikatu da automatikoki Udal honetako Alkate.

Jarraian, hautatua izan den PATXI PALZAOLA MUGURUZA jaunak, Udal honetako Alkate-kargua onartzen duela adierazi du, aldez aurretik hauteskunde-legean ezarrita dagoen legezko formulari legeak inposatuta men eginez eta kargua eman dion Udalbatza Osoaren aurrean Alkate-kargua hartu du, egungo xedapenek ematen dizkieten prerrogatiba, eskubide eta obligazio guztiekin.

Bukatzeko orain arte Alkate izan den, Jon Jauregi Bereziartua jaunak, Patxi Plazaola Muguruza Alkate berriari alkate-makila entregatu dio. Jon Jauregi Bereziartua jaunak eskerrak eman dizkie berarekin azkeneko hamabi urteotan lan egin dutenei eta ondoren esan du: “hainbeste denbora pasa eta gero oraindik ere badaude zinegotziak lan egiteko asmorekin jarraitzen dutenak. Horietako bat Patxi da. Aspaldidanik elkar ezagutzen dugu ni bere ikasle izan nintzelako, nahiz eta oso ikasle ona ez izan. Ziur nago Patxiren hautaketarekin Beasaingo herriak irabazi egingo duela. Patxi gai izango da beste talde politikoko zinegotzieren iritziei bide emateko eta adostutako erabakietara iristeko.”

Patxi Plazaola Muguruza: “Gaur egun EAJ/PNV-EA koalizioak Beasaingo gobernuan jarraitzea posible egin duten bozkatzaille guztiei eskerrak ematen dizkiet. Jon Jauregi jaunari zorionak ematen dizkiot hamabi urteotan Udalean egin duen lanagatik . Egia da, bai nire ikasle izan zela, baina azken urte hauetan bera izan da nire maisu eta berari esker gauza asko ikasi ditut. Amaitzeko esan, Udaletxeko atea beti irekita egongo direla beasaindar guztientzat.”

Eta besterik gabe, bilera eguerdiko hamabiak hogeitun gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.